

GOIKOETXIA iosulagunak :

"...Marrazkiak oso politak, egun-egungoak. "Zepenie"(azpeitiarrez esateko) onela ibilli bear au!(Multikopistaz-eta ibilli bear izatea). Bestela, gere kasa, geren eskuz ba'genbiltza, "Yakin" "mutikoa" aterako zenduten plazara.

Nere iritziz (besterena beste)"Yakin"ek obe luke olerkirik edo literatur-idaztirik ez artu; alde batetik, ori filosofi-teologi sallari ez dagokiolako; eta bestetik, eta batez ere, euskeraren onari begiratuta; "EGAN"i eta EUZKO-GOGOIA"ri kalte egin dezaietelako. Euskereakiko, gure bultzada guztiak zuzenbide bat eta jomaga bat bear dutela deritzait: Eusko Piskundea, alegiña. EGAN eta EUZKO-GOGOIA beren orriak bete eziñik eta beren egunean irten eziñik dabiltzala ematen du, eta ori ez da gaia geiaegizka dutelako izango iñolaz ere; orregatikan, ba, YAKINÉk bere igitai aien zaillean ez sartzea obe, nere iritziz. Gai oiek g o r a g o t i k, "ERTI" diraden aldetik, filosofiak begiz eta "txirikartetik", dagozkio "YAKIN"i, berriz ere, nere iritziz.. "

A.B. BERRIOTXOAK :

"...Iritzia YAKIN'eri buruz: dibujuak egoki egiten yataz. Modernuak eta egokiak...Bibliographilari bezela, oi dan bezelako portadarik eztaukola konturatzen naiz. Ezta konbeni izango bearbada. Estu ipintzen nun argitaratzen dan. Urterik ere ez. Ezpada konbeni, estu inporta: bibliographilari bezela konturatzen naiz gauzatxo onekin. Gaiak, oso ederrak eta batzuk sakonak ere bai, ondo pentsatu eta ondo egiñak. Onela jarraitzen ba-du, laister entzute aundiko aldizkaria izango da YAKIN dudarik gabe. Zenbat-eta Ordena eta Congregaziño geiagoren praile izenak agertu, obe izango da. Balore edo entzutr aundiagoa emango dautso orrela, eta danen artean propaganda geiago egingo genduke..."

A. ZABALA iosulagunak :

"...YAKIN" jaso genduan. Txit gustokoa zaigu. Nit trakurri nuan eta ordabil gelaz-gela emengo euskaldunei atsegin gozoena biotzean sarturikan...Nere iritzian, YAKIN'en lanak, geienak beintzat, oker txiki bat zeukaten izkeraz. Geieigi igertzen zaie euskeraren gramatika ikasi-berriak